

Gaur, ekintza baketsu honen bidez Palestinar herriak jasaten dituen Giza Eskubideen urraketak eta H&Mk honen aurrean duen konplizitatea salatu nahi ditugu.

Gaur ez da beste egun bat gehiago, **1948ko maiatzaren 14an britainiar soldaduak Palestinatik alde egin zuten eta Israelgo estatua aldarrikatu zen.** Ben Gurion lehendakariak ongi aurre-ikusitako moduan “Estatu Judua indarrez finkatuko da”. Erailketa, sarraski, bortxaketa eta arpilatzeak beharrezkoak izan ziren 531 herri ezabatuak izan eta 750000 palestinar errefuxiatu bilakatzeko. **Israel palestinar lurren %78ren jabe egin zen. Horregatik, Palestinarrek gaurko eguna Nakba izenekin ezagutzen dute, “hondamendia”.**

Palestinaren aurkako jazarpen, apartheid, lurren okupazio zein zigor kolektiboek aurrera jarraitu zuten, 1967ko sei egunetako gudan moduan edota Gazaren aurka 2008 urte amaieran eginiko inbasioan bezala.

NBEk palestinarrek beren etxetara itzultzeko zein herri moduan autodeterminatzeko duten eskubidearen inguruan erresoluzio desberdinak onartu dituen arren, **Israelek NBEren beste erresoluzio ugariarekin egiten duen moduan, ez du jaramonik egiten.** Zentzu honetan, Europar Batasunaren jokaera kidetasunarena da, Israelek ez baitu inongo zigorrik jasotzen.

Ahala eta guztiz ere palestinar herriak dirau eta nazioarteko elkartasunari egiten dio oihu. **Hego Afrikan bere garaian bertako apartheid salatzeko egin zen kanpainari jarraituz, palestinako 200 gizarte eragilek baino gehiago Israelen aurkako Boikot, Desinbertsio eta Isun kanpaina egiteko deialdia egin zuten,** palestinar xedearen aldeko neurri eraginkorrena moduan. “Nakba” oroitzeko eta elkartasun deialdi honi eutsiz, **ekintza hau burutzen dugu H&M ko dendan, beraien saltokietan ez kontsumitzeko eskatuz.** H&Mk NBEren “Global Compact” proiektuan parte hartzen duen bitartean, zeinak multinazionalak giza eskubideak errespetatzea duen xede, kolonia sionistak aurrera doaz Ekialdeko Jerusalemen, hiriarren zati horretako palestinarrak kanporatuz. **H&Mk apartheid politika babesten du bere dendak kolono sionistentzat jarritz.**

Horregatik gaude gaur hemen. H&Mk “erantzukizun korporatibo” aren izenean NBEekin, Amnistia Internazionalarekin zein OCDEekin dituen hitzarmenak errespetatzen ez dituen bitartean, gizartearen aurrean publikoki salatzen jarraituko dugu, modu honetako ekintza baketsu baino irmoen bidez.



Palestina askatu! Israeli boikota! H&Mri boikota!